

Baketik urteko gogoeta, proposamen eta dibulgazio ekimena

ÉR

bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

2018

indargunea

Giza Eskubideak

Ibilbidea eta kontraesanak

baketik

2018ko urtarrila

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Aurkezpena

2011ko urtarrilean Baketik-ek «Adiskidetzarako Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urtearen hasieran, geure gizartearen bizikidetzeta eta adiskidetze-kultura berria bultzatzea helburu duen agiria aurkeztea da ekimenaren xedea.

Lehenengo agiriaren izenburua honakoa izan zen: «Adiskidetze-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena». Eremu desberdinetara (politikoa, udal mailakoa, hezkuntza, elkarteak eta eguneroko bizitza) zuzenduak zeuden «Bost proposamen zehatz» izenburua zeraman 2012 Indarguneak. 2013koak aliantza estrategikoa proposatzen zuen udalen eta ikastetxeen artean herri mailan bizikidetzeta bultzatzeko. 2014 Indarguneak humanizazioa defendatzen zuen sufrimendu pertsonalak eta kolektiboak murrizteko eta giza harremanak zein sozialak eta politikoak berreraikitzeke elkargune eraikitzaile gisa. 2015 Indarguneak bake prozesua sendotzeko gizarteak eskaini dezaken funtsezko energiaren aldeko apustua egin zuen. 2016 Indarguneak sufrimendura gerturatzearen inguruko hausnarketa eta gizarte-ekintza bultzatu nahi zituen, gizatasunaren bidean pausoak ematen joateko helburuarekin. Azkenik, 2017an, Indarguneak elkartasunaren inguruan hausnartu nahi izan zuen, sufrimendu bidegabeen eta giza-duintasunaren balorearen gainbehera orokortuaren testuinguruan, horiekiko elkartasuna eta konpromiso pertsonal nahiz kolektiboa ezinbesteko bihurtzen baita.

2018an 70 urte beteko dira “Giza-Eskubideen Adierazpen Unibertsala” aldarrikatu zenetik. Uste dugu geldialdi bat egin eta haien egoera zein den ikusteko une egokia dela. Giza-eskubideena gizarteak inoiz giza-duintasunaren alde hartu duen konpromisorik handienetakoa da. Bistakoa da haiek guztiz errespetatu eta zalantzan jarriko ez diren eguna urrun dela oraindik. Beste hainbatetan bezala, gure begirada eta ahalegina erronka honetarako ezinbestekoa den horretan jarriko dugu: giza-duintasunaren sustapenean.

Giza-Eskubideen Adierazpen Unibertsalak 70 urte. Non gaude?

Datorren abenduaren 10ean 70 urte beteko dira Giza-Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zenetik. XX. mendearen lehen erdian gizarteak eragin eta jasan zituen basakerien erantzun moduan jaio zen deklarazioa; Bigarren Mundu Gerraren amaierak agerian utzitako izuaren sofistikazioak bultzatu zuen Adierazpen honen

sorrera. Ziurrenik, mundu garaikidean inoiz sinatu den nazioarteko akordio garrantzitsuena da.

Adierazpenak zuzenbidearen erdigunean jarriko du "giza-duintasuna"-ren babesa, gizaki orok, gizartearen parte den heinean daukan ezaugarria izanik.

Paperaren gainean, ia herrialde guztiek ezberrik gabe onartzen dituzte Adierazpenean jasotako oinarriko eskubideak eta horiek dakartzaten askatasunak: genero, arraza, erlijio edo sexu-orientazioagatik diskriminatua ez izateko eskubidea; segurtasun pertsonalerako eskubidea, torturatua ez izateko edo bidegabe atxilotua ez izateko eskubidea, epaiketa justu bat edukitzeko eskubidea; adierazpen askatasuna, biltzeko eta kontzientzia askatasuna; hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, elikadura eskura izateko eta aterperako eskubidea. Eta noski, bizitzeko eskubidea.

Hauek eta beste eskubide batzuk egonkortasunarekin, garapenarekin eta bakearekin lotuta daude; unibertsalak eta exijitu beharrekoak dira maila globalean, baina, gainera, zatiezinak eta elkarren menpekoak dira: horietako edozeinetan aurrera egiteak, beste guztien aurrerabidea errazten du. Era berean, eskubide hauetakoren bat ukatzeak beste eskubideengan eragin negatiboa du.

Kontuan hartu behar da, gizakion gainerako bideak bezala, hau ere ez dela zuzena eta erraza izan. Adierazpena 1948ko abendukoa bada ere, adierazpena, bere horretan, ez zen loteslea izango, eta 1966an idatziko ziren Adierazpen hori garatzera zetozen bi Hitzarmenak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena, eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena, hauek bai, juridikoki lotesleak zirenak.

Ez da ahaztu behar, bestalde, Nazio Batuen kide diren estatu batzuek ez dituztela aitortu nazioarteko akordio hauek.

Argi-ilunak argituz

Giza-duintasunaren printzipioaren deklinabide gisa uler genitzakeen Giza-Eskubideak, bizitza duin baten aldeko garapen eta borrokan botere agorrezin garrantzitsua duten tresna baliagarriak dira. Goazen lehenik gaiak dituen kontraesanak ikustera, eta gero gure egintza gidatuko duten irizpideak ikusiko ditugu.

Hiru kontraesan

Giza-eskubideek, txanponek bezala, bi aurpegi dituzte. Abantaila batek, desabantaila bat dakar; erabilera etiko batek, gehiegikeria bat. Egia da horiek garatzerakoan zailtasun eta kontraesan ugarirekin topo egiten dugula, eta ezin du beste modu batean izan gainera, giza-eraikuntza bat den aldetik. Gizakia mugatua da eta, ondorioz, mugatua da bere sorkuntza oro. Giza-eskubideen garapen ez perfektuak

etengabe eraikitzen ari den prozesu baten muga eta kontraesanekin aurrez aurre jartzen gaitu, eta gure balio etikoak eta irudimen konstruktiboa artikulatzera behartzen gaitu aurrera egin ahal izateko.

1. Besterenezinak, baina bermatzen zailak. Giza-eskubideen besterenezintasuna bezalako ezaugarriak, berez edozein Estaturengandik independente direnak, zalantzan jartzen dira batzuetan, urraketa larrien aurrean ez baitago haiek guztiz berma ditzakeen agintari edo erakunderik. Horrez gain, kontuan izan behar dugu Estatuaren subiranotasun eta kontrolatik at lan egiten duten nazioz gaindiko erakundeak sortu eta existitzen direla.
2. Globalki onartuak, baina baita gehiegikeriaz erabiliak ere. Era berean, globalizazio prozesuaren ondorioz, honek eragin handia izan du giza-eskubideen lengoiaia modu global batean hedatzeko eta zabaltzeko garaian, balio eta arauetan lengoiaia erreferentzial bilakatzera. Baina, aldi berean, instrumentalizazio politikorako objektu ere izan da, Estatu eta komunikabideek sarri gehiegikeriaz erabilia.
3. Zentzua dute bere horretan, baina, lurreratzean, beste esanahi batzuekin lotu behar dira. Aurrekoarekin lotuta, erraza da giza-eskubideen diskurtsoa asmo onen adierazpen soil bezala gelditzea. Giza-eskubideen diskurtsoan esanahiak osatzen dituzten eta giza-duintasunaren etikaren eta honen zehaztasunaren ikuspegitik garrantzitsuak diren bi ideia daude:

a. Alde batetik, berdintasunaren kontzeptua osatzera dator identitate aniztasunaren eta desberdintasunaren beraren onarpenaren kontzeptua. Gaur egun ia gizarte ororen ezaugarri bilakatu den kulturantzitasunak, gizarteetan identitate desberdinak daudela aldarrikatzeak, aurrez horiek onartzea eskatzen du, berdintasuna gauzatu ahal dadin. Desberdinak gara eta, aldi berean, desberdintzen gaituzten ezaugarriak baino askoz gehiago gara. Azken honetan egiten gara parekoak.

b. Beste alde batetik, justiziaren kontzeptuak eskutik dakar ekitatearena; ezingo genuke giza-duintasunaz hitz egin gizartearen zati bat ondasunetatik at uzten dugun bitartean; horregatik birbanaketaren kontzeptuak ezin du gelditu giza-eskubideen iruditeriatik eta lan-plangintzatik aparte. Ez da nahikoa bizitzeko eskubidea bermatzea, bizitza duinak nahi ditugu.

Azaleko ohar hauek agerian jartzen dituzte giza-eskubideen lanketaren inguruan dauden kontraesan eta paradoxak. Baina, zintzoak izateko: historian lehen aldiz, giza-eskubideak aztertu eta euren agendetan mantentzen dituzten nazioarteko erakundeak ditugu. Horrek ez du kentzen, ordea, gero eta gizatasun gutxiago duten gerrak bizi-bizirik egotea eta giza-eskubideak urratzen jarraitzea hainbat eta hainbat estatutan, baita nazioarteko hitzarmenak onartzeko arazorik izan ez duten estatu demokratiko zenbaitetan ere.

Hala eta guztiz ere, umiliazio eta jazarpen fisikoarekiko gaitzespena, eskubide murrizketen ukazioa... gaur egun jada gutxi-gehiago onartuta dauden giza

duintasunaren edo gizarteko kide ororenganako errespetua bezalako oinarri moral eta etikoen parte dira jada.

Horregatik, argi-ilunez beteriko balantzea egin arren, giza-eskubideek bidegabekeriaren aurkako borroka artikulatzeko elementu baliagarriak izaten jarraitzen dute, giza-duintasuna eta biktimen justizia beharra erdigunean jarriz eta lan-eremua bera markatuz; etengabe eraikitzen doan heinean, lan-eremu horretara eskubide berriak gehitu beharko ditugu, ezinbestekoa baita adierazpena sortu zenean hura bultzatu zutenen eremu kognitiboetatik eta sentsibilitateetatik at gelditu ziren eskaera eta onarpenak ere integratzea.

Egintza gidatzeko bi irizpide

1. Duintasuna itsasargi...

Arestiko paragrafoetatik ondorioztatzen dena da giza-eskubideak garatzeak eta ezartzeak etengabeko lana, hausnarketa eta ekintza eskatzen dutela. Giza-duintasunaren esperientzia pertsonala eta kolektiboa izango dira zeregin honetan gure itsasargiak.

Maila pertsonalean. Gizaki bezala, neure duintasuna bizitzea. Beste pertsonak baino gehiago edo gutxiago sentitzen naizen uneei adi egotea. Neure burua zaintzea, mugak ezartzea, baldintza duinak eskatzea. Neure identitate anitzez eta identifikatzen nauten etiketez ohartzea, eta horretan sakontzea, beti kontuan izanik neure buruaz egiten dudan edozein murrizketa baino gehiago naizela eta izango naizela. Sakontasun horretan dago neure duintasuna.

Pertsona-arteak mailan. "Bestearen" etengabeko humanizazioa. Giza-eskubideekiko konpromisoa ezin uler daiteke bestearen giza-duintasunaren onarpenik gabe: beste komunitate bateko kideak, beste identitate bat dutenak, beste amets edo helburuak dituztenak, gugandik desberdin sentitzen edo pentsatzen dutenak. Geure burua besteengan ikustea.

Maila kolektiboan. Talde edo komunitate bezala aztertu zertan garen beste talde edo komunitateengandik desberdinak, eta zertan garen berdinak. Geure pribilegioak zalantzan jarri ("gehiago" sentitzea) eta besteak seinalatzea. Geure buruak zaintzea eta baldintza duinak eskatzea ("gutxiago" sentitzeari uztea). Talde bezala ditugun etiketak identifikatzea eta harago joatea: beti gara gugatik egingo duten edozein murrizketa baino gehiago.

2. ...eta izaera mugatua abiapuntu

Gizakia mugatua da, gure planeta eta bere baliabideak mugatuak diren bezala. Honek, blokeatu beharrean, errealitatean hobeto kokatzen laguntzen digu eta gure esku dagoena egitera bultzatzen gaitu. Zehazki, lau dira izaera mugatu horretatik atera ditzakegun ikaskuntzak, giza-eskubideei dagokionean:

- Paralisia, perfekzioa bilatzeagatik: Batzuetan zalantzek eta kontraesanek paralizatuta gelditzera garamatzate estrategia perfektu bat bilatu arte. Giza-izaera mugatuaren esperientziak erakusten digu ez dagoela estrategia perfekturik, perfekzioa ez delako existitzen. Giza-eskubideak ez dira perfektuak, eta horiek bermatzeko ekintzak ere ez dira inoiz perfektuak izango. Horrek ez du esan nahi, umiltasunetik eta etengabeko berrikuspen batetik beti ere, ez dugunik giza-eskubideen defentsa eta giza-duintasunarekiko errespetua gure ekintzen erdigunean jarri behar.
- Inguruneak ez ditu gizakion hausnarketak ulertzen. Baliabide mugatuaren abusuak egoera batera garamatza, non beharrezkoa eta presazkoa den gizakiok gure ingurunearekin ditugun harremanak berraztertzea. Giza-duintasuna errespetatzea lurra, airea, elikagaiak eta, azken finean, defendatu nahi dugun bizitza posible egiten duen guztia errespetatzea da.
- Munduan nagusi dira gizaki gehienentzako zedarritzeko eta eragiteko zailak diren botere estruktural sarri abstraktuak. Inork ez daki zein den mundu-sistema bidegabe bat aldatzeko eta baliabideak berdintasunez birbanatzeko sakatu beharreko "tekla zuzena". Lehenengo puntuan esan bezala, mundu-sistema erraldoi horretaz arduratu nahi izateak paralisira eramán gaitzake. Giza-eskubideen defentsak ekintza-marko maneiagarriago bat eskaintzen digu, inpotenziaren eta babesgabetasunaren zulora garamatza errealitate izugarri baten aurrean.
- Mugagabea den gauza bakarra gizakion sormena da; beste guztia mugatua da: baliabideak, boterea, aberastasuna, espazioak... Erabaki bihozberak behar dira, akordioak, mugatua den hori guztia parekotasunez eta modu justuan birbanatzeko eraikuntza sozialak. Giza-Eskubideak hedapenean parekorik ez duten aurrekaririk gabeko akordio etiko globala dira, eta birbanatze horretan lagundu dezakete.